



GOBERNU BILERA

**Prensa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailak 24

Vitoria-Gasteiz, 24 de septiembre de 2019



Lehendakaritza

EUROPAKO DEMOKRAZIARI BURUZKO KONGRESU BAT ANTOLATZEKO LAGUNTZA

Globernance-Gobernantza Demokratikoaren Institutuari laguntza bat ematea onetsi du gaur Gobernu Kontseiluak, *VI Bilbao European Encounters: "Europako demokrazia" eta bere kritikak* kongresua antolatzeko. Laguntzaren zenbatekoa 10.000 eurokoa da eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak kudeatuko du, Europako Gaietako bere Zuzendaritzaren bitartez.

Kongresua azaroaren 18an egingo da Bilboko Azkuna Zentroan, eta Europako eta nazioarteko aditu gailenek parte hartuko dute bertan.

Nazioarteko topaketa horren helburua da Europako demokraziari berari eta Europako integrazioaren gaur egungo erronkei buruz hausnarketa bat egitea, diskurtso populisten eta muturreko eskuinaren goraldia eta arrakasta baita berri faltsuek bideratzen duten "emozioen politika" ere kontuan hartuta.



MEMORIA HISTORIKOAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROA EZAGUTU DU GAUR GOBERNU KONTSEILUAK ETA HORREKIN EMANGO ZAIO HASIERA BERE TRAMITAZIOARI

Memoria Historikoaren Legearen aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa aurkeztu du gaur Lehendakariak Gobernu Kontseiluan. Hala, horrekin emango zaio hasiera bere tramitazioari lege-proiektu gisa. Momentu honetatik aurrera, Legebiltzarreko Taldeekin eta elkarte memorialistekin partekatu da dokumentua.

Aurrekariak

Legegintzaren egutegian hasiera batean aurreikusita ez zegoen aurreproiektu honen aurrekariaren sorburua 2018ko otsailaren 8an onetsitako Legebiltzarren ekimen batean dago, non PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-en aldeko botoarekin, Gogorari eskatu baitzitzaion txosten bat egiteko Memoria Historikoaren Lege baten komenigarritasunari buruz.

2018ko urriaren 29an, “*Memoria Historikoaren arloko EAeko politika publikoei buruzko txostena*” igorri zion Gogorak Legebiltzarrari, Paco Ferrandizek eta Marije Hristovak landua. Bertan jasotzen ziren ondorioek Gogora sortzeko Legea araubidez osatzea gomendatu zuten. Horren ondorioz, Gogorak Memoria Historikoaren Lege baterako lehenengo zirriborro bat enkargatu zion Eduardo Barrera adituari.

Bikoitza izan zen enkargu horren helburua. Batetik, lege bat onesteko epeak kontuan hartuta, bere tramitazioa ez atzeratzea. Bestetik, lehenbailehen zirriborro bat jartzea Gogorako Zuzendaritza Kontseiluan zeuden Legebiltzarreko Taldeen eskueran.

Abiaturua

Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea ez da zerotik abiatzen. Amaigabeak dira Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek, eta Udalek, gizarte zibil antolatua eta gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen senideek sustatutako ekintzak. Azken hogei urteetan, etengabe hedatu dira ekimenak leku sinbolikoak berreskuratzeko, giza hondakinak hobietatik ateratzeko, artxiboak berrantolatuzeko, gertakari historikoak ikertu eta ezagutzera emateko, datu-baseak lantzeko, testigantzak jasotzeko, eta baita aitortzak ere. Eta horren guztiaren emaitza izan zen Gogora sortzeko Legea onetsi izana.

Gogora sortzeko Legeak konfiguratu zituen *zeina*, subjektu instituzionala eta bere eskumenak memoriaren arloko politikak garatzeko. Lege berri honek konfiguratu du *zera*, jardueren eremua. Lege honek zentzu-unitatea ematen die politika publiko horiei, eta beren segurtasun juridikoa indartzen laguntzen du.

Edukia

Zirriborro hau hamaika kapitulutan egituratzen da. I. kapituluak Egia jakiteko Eskubideari heltzen dio. Horretarako, jardun publikoaren hainbat lerro azaltzen dira, frankismoak berekin ekarri zuen injustizia argitzen lagunduko duten ikerlanen eremuan.

II. kapitulua biktimen Justiziarako Eskubideari eskainia da, eta zehaztu egiten du Justizia Administrazioarekiko lankidetzak, giza hondakinak aurkitzearen kasuan, edo ekintza prozesalei hasiera emateko xedapena. Hori guztia, Arartekoaren eta nazioarteko instituzioen gomendioei jarraituta, inpunitatea eragozteko eta justiziarako eskubidea gauzatzeko neurriak bultzatzean.

III. kapituluak biktimek aitortza jasotzeko duten eskubidea arautzen du, hainbat ekimenen bitartez: dokumentu instituzional pertsonalizatu bat, Eusko Jaurlaritzak igorria, Biktimei eskainitako Egun bat finkatzea, eta instituzioen arteko akordio bat bultzatzea Memoria Historikoa berreskuratzeko.



IV. kapituluak dibulgazioarekin eta hezkuntzarekin lotutako zereginari heltzen dio. Eremu honetan nabarmendu egiten dira Gogoraren Dokumentazio Zentroa sendotzea, erakusketa-gune bat sortzea, edo ekitaldiak sustatzea memoria historikoa hedarazteko. Gainera, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea aurreikusten da, Memoria Historikoa euskal curriculumean txertatzeko.

V. kapituluan adierazitakoaren arabera, Gogorari dagokio Gerra Zibilean desagertutako pertsonen lokalizazioan eta identifikazioan jardutea, baita hobien mapa bat egitea, desagertuen senideekin komunikazioa izatea, edo desagertuen hondakinetarako kolunbarioak eraikitzea. Gainera, beste instituzio autonomiko batzuekin edo Espainiako Gobernuarekin hitzarmenak sinatzea ere aurreikusten da pertsona desagertuak berreskuratzeko eta, zehazki, Valle de los Caídos-en hobiratutako euskaldunen hondakinak berreskuratzeko.

VI. kapituluak Euskadiko Memoria Historikoari lotutako lekuei, ibilbideei eta espazioei heltzen die. Katalogo baten sorkuntza eta bere babes- eta kontserbazio-erregimena araudiaren ondorengo garapen batean biltzen dira.

Memoria Historikoaren aurkako sinbologia VII. kapituluan arautzen da. Halako sinbolo gehienak azken urteotan kendu egin badira ere, oraindik ere aztarrenak geratzen dira eta horiek kentzeko agintzen du legeak.

VIII. kapitulua Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren dokumentuei eskainia da. Zentzu horretan, fondo dokumental guztiak berreskuratzeko beharrezko jardura guztiak bultzatzen dira, baita Euskadirentzat interesekoak diren ahozko testigantzak ere.

IX. kapituluak aitortza bat egiten dio elkarteen mugimenduari, Euskadiko Memoria Historikoa eta Demokratikoa berreskuratzen eta biktimak defendatzen egiten duten lanagatik, eta neurriak ezartzen ditu haien partaidetza sustatzeko, Memoria Historikoaren arloan diharduten entitateen erregistro baten eta Aholkularitza Batzorde baten sorkuntzaren bitartez.

X. kapituluan Administrazioaren jardunari eta antolamenduari buruzko artikuluak garatzen dira. XI. kapituluak, azkenik, zehapen-araubidea ezartzen du. Lehen xedapen gehigarriak Gogorari ematen dio erantzukizuna azterlan bat sustatzeko biktimei zuzendutako ordain-neurri ekonomikoekin lortutako estaldura-mailari eta zuzendu daitezkeen defizitei buruz.

Bigarren xedapen gehigarriak Euskadiko Memoria Historikoaren Lekuen Katalogoa dekretuz arautzea ezartzen du. Lehenengo xedapen iragankorrak legea indarrean sartu aurretik hasiera eman zaien prozedurak ezartzen ditu. Bigarren xedapen iragankorrak Memoria Historikoarekin zerikusia duen Ondare dokumentala Euskadiko Artxibo Historikora transferitzeko gaiari heltzen dio.

Lege honen tramitazioaren hasierako une honetan, Eusko Jaurlaritzak azpimarratu egin nahi du azkeneko bi hamarkadetan, frankismoaren biktimen aitortza eta itzulketa morala, eta memoria historikoaren egiaren ordaina, euskal gizarteak, bere eragile sozialek eta bere instituzioek adostasun-maila handi batekin bateratu duten misio bat izan dela. Lege hau misio horren eta modu partekatu batean berau burutzeko erabakitasearen arau bidezko tresna bat da.



Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK LANKIDETZAN JARDUNGO DUTE HIRIGINTZAKO IKASLEAK PRESTATZEKO

- **Eusko Jaurlaritzaren *Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako* ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte Bizkaiko Foru Aldundian, eta, era horretan, zuzenean ezagutu ahal izango dute hirigintza-arloko lanbide-jarduera**

Hirigintzako eta lurralde-ikasketetako ikastaroetako ikasleek Bizkaiko Foru Aldundian praktikak egiteko Eusko Jaurlaritzaren eta foru-erakundearen artean hitzarmen bat izenpetzea baimendu du gaur Gobernu Kontseiluak.

Urtero, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) mendeko *Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak* (LHIEE) 700 orduko ikastaro bat antolatzen du, eta, bertan, 300 orduko borondatezko praktikak eskaintzen ditu ikastaroa osorik gainditu duten eta azken 8 urteetan hirigintza-arloan gutxienez 48 hilabeteko lanbide-esperientzia duten ikasle guztientzat.

Hitzarmen horri esker, ikasleek Bizkaiko Foru Aldundiko hirigintza-arloan egin ahal izango dituzte curriculumaren kanpoko praktika horiek, beren prestakuntza osatzeko.



Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK MARIAN OLABARRIETA IZENDATU DU EUSKO JAURLARITZAREN ORDEZKARI GIZARTE-INKLUSIORAKO ERAKUNDEEN ARTEKO BATZORDEAN

Gobernu Kontseiluak **Marian Olabarrieta** Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria izendatu du Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gizarte-inklusionarako erakundeen arteko Batzordean, Emilio Solaren ordez.



Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 55 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDURIKO BEKETARAKO

- Eskaerak aurkezteko epea, irailaren 30etik urriaren 29ra zabalik
- Baldintzak betetzen dituen familia orok laguntza jasoko duela bermatzen du Hezkuntza Sailak
- Derrigorrezko hezkuntzan dauden ikasleei zuzenduriko beketan ez da aldaketarik izan

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019-2020 ikasturtean unibertsitatez kanpoko mailtako ikasleak eskolatzeko beka eta dirulaguntzak deitzen dituen Agindua. Deialdiak 55 milioi euroko diru-kopurua du.

2019-2020 ikasturterako deialdi honek, honako ikasketa maila hauetarako beka eta dirulaguntzak hartzen ditu bere baitan:

- Batetik, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak burutzen ari diren ikasleak eskolatzeko beka eta laguntzak. Beka hauek ez dute inolako aldaketarik aurreko ikasturteetako deialdiekiko.

Aipaturiko maila horietako ikasleei zuzenduriko bekek honako osagai hauetako bat edo zenbait har ditzakete beren baitan: kuota osagaia; irakaskuntzaren osagaia; joan-etorrietarako osagaia; ikasmaterialetarako osagaia; eta jantokiaren osagaia.

- Bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egiten diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzatarako ere deitzen dira beka eta laguntzak. Hauen artean daude: Batxilergoa; Lanbide Heziketako zikloak; Arte plastikoak eta diseinua (Heziketa-zikloak); Musikako eta dantzako irakaskuntza profesionalak; Kirol-irakaskuntzak; Hezkuntza administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.

Hezkuntza Sailak aldaketak egin ditu ikaskuntza hauei dagozkien beketan, Auzitegi Gorenaren sententzia ezagutu ondoren, deialdiaren zein ikasle onuradunen segurtasun juridikoa bermatzea helburu.

Egin beharreko aldaketen ondoren, ikasketa maila hauetako ikasleek eskatu ahal izango dituzten bekek osagai hauek dituzte: Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Oinarrizko bekaren osagaia; Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia; eta Zenbateko aldakorreko osagaia. Osagai horietako bakoitzarentzako ezartzen diren errenta-mugak ere aldatu egin dira.



Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30etik urriaren 29ra arte egongo da irekia. Informazio guztia eskura izango da Hezkuntza Sailaren webgunean, Agindua EHAAan argitaratu ondoren.

Hezkuntza Sailak bermatzen du baldintzak betetzen dituen familia orok jasoko duela laguntza ekonomikoa. Horretarako, deialdi honen diru-kopurua (55 milioi eurokoa) handitu egin daiteke, beharrezko gertatuko balitz. Era honetan, ikasle guztiek hezkuntzarako eskubidean aukera berberak izatea eta familiaren egoera ekonomikoa zailtasun gehigarri bat ez izatea ere bermatzen da honela.



Osasuna

SAILAK HASIERA EMAN DIO LARRIALDIETAKO GARRAIO SANITARIOA KONTRATATZEKO PROZESUARI, 118 MILIOI EUROKO ZENBATEKOAZ

Gobernu Kontseiluak gaur erabaki du Osasun Sailak hasiera ematea larrialdietako garraio sanitarioko zerbitzua eta osasun-larrialdietako laguntzako zerbitzua datozen hiru urteetarako (2020, 2021 eta 2022) kontratatzeko prozesuari, **117.615.576 euroko** zenbatekoaz. Gaur egungo kontratuarekiko **% 27ko gehikuntza** dakar eta, hartara, egungo kostuetara eta anbulantzien errepidean zeharreko osasun-garraioaren hitzarmen kolektibora egokitzen da.

Kontratu berri horren lurralde-esparruak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen du, eta barnean hartzen ditu Euskadiko Larrialdietako Garraio Sanitarioko Sarerako Oinarrizko Bizi Euskarriko eta Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko baliabideak. Sare horretan, sartzen dira **lurraldearen zenbait puntutan modu estrategikoan banatutako** anbulantziak — asistentziako zerbitzuak eta larrialdiko garraio sanitarioak modu koordinatuan egiten dituztenak—.

Zerbitzu horiek egingo dira Oinarrizko Bizi Euskarriko eta Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko 74 anbulantziaren bidez: 15 anbulantzia Araban (Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko 2 eta Oinarrizko Bizi Euskarriko 13), 35 anbulantzia Bizkaian (Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko 7 eta Oinarrizko Bizi Euskarriko 28) eta 24 anbulantzia Gipuzkoan (Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko 2 eta Oinarrizko Bizi Euskarriko 22).

Osasun-sistema publikoak bere baliabideekin zerbitzuak egin ezin dituela kontuan izanik, Osasun Sailak egungo jardun-ildo berari jarraipena emango dio, eta, hartara, herritarrei eskaintzen zaien larrialdietako osasun-zerbitzuaren kalitatea bermatuko du eta kontratu berri honen helburu den asistentzia-prozesuaren globalizazioan aurrera egiten jarraituko du.

Erizaintzadun Bizi Euskarri Aurreratuko eta Oinarrizko Bizi Euskarriko baliabideak funtsezkoak dira Euskadiko larrialdiei eta emergentziei osasun-erantzuna emateko sarean. Aukera ematen dute osasuna galtzen den lekuetan bertan larrialdietako osasun-laguntza eskaintzeko eta larrialdi baten aurrean laster erantzuteko, osasun-arriskuan dauden pertsonak azkar artatuz — aktibazio-denbora laburrei esker—. Eta hori guztia larrialdi-zerbitzuarekin eta Larrialdietako Garraio Sanitarioko Sareko baliabide guztiekin koordinatuta egiten da.

Kontratuaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera eta kontratatzailearen profileria bidaliko da, baimen eta onar dadin. Aurreikusi da eskaintzak aurkezteko epea iraileko azken astean hastea eta 15 egunez luzatzea.



Presidencia

AYUDA PARA LA ORGANIZACIÓN DE UN CONGRESO SOBRE LA DEMOCRACIA EN EUROPA

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la concesión de una ayuda al El Instituto de Gobernanza Democrática-Globernance, para la organización del congreso *VI Bilbao European Encounters: "La democracia en Europa" y sus críticas*. La ayuda suma un total de 10.000 euros y será gestinada por la Secretaría de Acción Exterior, a través de si Dirección de Asuntos Europeos.

El Congreso tendrá lugar el 18 de noviembre en el Azkuna Zentroa de Bilbao y contará con la participación de diversas personas expertas europeas e internacionales de primer nivel.

El objetivo de este encuentro internacional es reflexionar sobre la propia democracia en Europa, y los retos a los que la integración europea se enfrenta en la actualidad, teniendo en cuenta el aumento y el éxito de los discursos populistas y de la extrema derecha y la llamada "política de las emociones", canalizada por las noticias falsas.

EL CONSEJO DE GOBIERNO HA CONOCIDO HOY EL BORRADOR DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE MEMORIA HISTÓRICA CON EL QUE SE DARÁ INICIO A SU TRAMITACIÓN

El Lehendakari ha presentado hoy en el Consejo de Gobierno el primer borrador del anteproyecto de ley de Memoria Histórica con el que se dará inicio a su tramitación como proyecto de ley. A partir de este momento, el documento se compartirá con los Grupos Parlamentarios y asociaciones memorialistas.

Antecedentes

Los antecedentes de este anteproyecto, no previsto inicialmente en el calendario legislativo, se remiten a una iniciativa parlamentaria aprobada el 8 de febrero de 2018 en la que con el voto favorable de PNV, PSE-EE, EH Bildu y Elkarrekin Podemos se solicitó a Gogora, un informe sobre la conveniencia de una Ley de Memoria Histórica.

El 29 de octubre de 2018, Gogora entregó al Parlamento Vasco el “*Informe sobre políticas públicas de Memoria Histórica en Euskadi*”, elaborado por Paco Ferrandiz y Marije Hristova. Sus conclusiones aconsejaron complementar normativamente la Ley de creación de Gogora. Como consecuencia de ello, Gogora encargó un primer borrador para una ley de Memoria Histórica al experto Eduardo Barrera.

El objetivo de este encargo fue doble. Por un lado, teniendo en cuenta los plazos de aprobación de una ley, no demorar su tramitación. Por otro, poner cuanto antes a disposición de los Grupos Parlamentarios presentes en el Consejo de Dirección de Gogora un borrador.

Punto de partida

La Ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi no parte de cero. Son innumerables las actuaciones promovidas por el Gobierno Vasco, las Diputaciones, y los Ayuntamientos, la sociedad civil organizada, y los familiares de las víctimas de la guerra civil y el franquismo.. En los últimos veinte años, se han desplegado iniciativas de recuperación de lugares simbólicos, exhumaciones de restos, reordenación de archivos, investigación y divulgación de hechos históricos, elaboración de bases de datos, recogida de testimonios, o actos de reconocimiento que culminaron en la aprobación de la Ley de creación de Gogora.

La ley de creación de Gogora configuró el *quién*, el sujeto institucional y sus competencias para el desarrollo de las políticas de memoria. Esta nueva ley configurará el *qué*, el ámbito de las actuaciones. Esta ley otorga unidad de sentido a estas políticas públicas y contribuye a reforzar su seguridad jurídica.

Contenido

Este borrador se estructura en once capítulos. El Capítulo I aborda el Derecho a la Verdad. Se despliegan para ello diversas líneas de actuación pública en materia de investigaciones que arrojen luz sobre la injusticia que supuso el franquismo.

El Capítulo II está dedicado al Derecho a la Justicia de las víctimas que concreta la colaboración con la Administración de Justicia, en el caso de hallazgos de

restos humanos, o la disposición para iniciar acciones procesales. Todo ello, siguiendo las recomendaciones del Ararteko, y de las instituciones internacionales en el impulso de medidas para impedir la impunidad y hacer efectiva el derecho a la justicia.

El Capítulo III regula el derecho de las víctimas a su reconocimiento, mediante varias iniciativas: un documento personalizado de carácter institucional, emitido por el Gobierno Vasco, el establecimiento de un Día dedicado a las víctimas y el impulso de un acuerdo inter-institucional para la reparación de la Memoria Histórica.

El Capítulo IV aborda la tarea de la divulgación y la educación. Destacan en este ámbito la consolidación del Centro de Documentación de Gogora, la creación de su espacio expositivo o la promoción de eventos para la difusión de la memoria histórica. Se prevé así mismo la colaboración con el Departamento de Educación para la inserción de la Memoria Histórica en el currículum vasco.

De acuerdo con el Capítulo V, le corresponde a Gogora actuar en la localización e identificación de las personas desaparecidas en la Guerra Civil, así como la realización del mapa de fosas, la comunicación con los familiares de desaparecidos o los columbarios destinados a los restos de las personas desaparecidas. Se contempla también la firma de convenios con otras instituciones autonómicas o con el Gobierno de España para la recuperación de personas desaparecidos, y concretamente, para recuperar los restos de vascos inhumados en el Valle de los Caídos.

El Capítulo VI aborda los lugares, itinerarios y espacios de Memoria Histórica de Euskadi. La creación de un Catálogo y su régimen de protección y conservación se remiten a un desarrollo reglamentario posterior.

La simbología contraria a la Memoria Histórica se regula en el Capítulo VII. Aunque la mayoría de símbolos de este tipo han sido retirados a lo largo de los últimos años, sigue habiendo vestigios cuya desaparición ordena la ley.

El Capítulo VIII se dedica a los documentos de la Memoria Histórica y Democrática de Euskadi. En este sentido, se impulsan las actuaciones necesarias para recuperar todos los fondos documentales, y testimonios orales de interés para Euskadi.

El Capítulo IX realiza un reconocimiento al movimiento asociativo por su labor en la recuperación de la Memoria Histórica y Democrática de Euskadi y en la defensa de las víctimas y establece medidas para fomentar su participación a través de la creación de un registro de entidades de Memoria Histórica y la creación de un Comisión Asesora.

En el Capítulo X se desarrollan los artículos referidos a la actuación y organización administrativa. El Capítulo XI, por último, establece el régimen sancionador. La disposición adicional primera deposita en Gogora la responsabilidad de promover un estudio sobre el grado de cobertura alcanzado con las medidas de reparación de carácter económico dirigidas a las víctimas y sobre déficits subsanables.

La disposición adicional segunda, establece la regulación por decreto del Catálogo de Lugares de Memoria Histórica de Euskadi. La transitoria primera



dispone sobre los procedimientos que hayan sido incoados con anterioridad a la entrada en vigor de la ley. La disposición transitoria segunda aborda la transferencia del Patrimonio documental relacionado con la Memoria Histórica al Archivo Histórico de Euskadi.

En este momento de inicio de la tramitación de esta ley el Gobierno Vasco quiere subrayar que en las últimas dos décadas, el reconocimiento y restitución moral de las víctimas del franquismo y la reparación de la verdad de la memoria histórica ha sido una misión que la sociedad vasca, sus agentes sociales y sus instituciones han puesto en común con un alto grado de consenso. Esta ley es una herramienta que se constituye en el reflejo normativo de esa misión y de la determinación de culminarla de forma compartida.

Gobernanza Pública y Autogobierno

GOBIERNO VASCO Y DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA COLABORARÁN PARA FORMAR A ESTUDIANTES DE URBANISMO

- Los alumnos y alumnas de la *Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos* del Gobierno Vasco podrán realizar prácticas en la Diputación Foral de Bizkaia y tomar, así, contacto directo con la actividad profesional en materia de urbanismo

El Consejo de Gobierno ha autorizado, hoy, la firma de un convenio entre el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia para que el alumnado de los cursos de urbanismo y estudios territoriales puedan realizar prácticas en la institución foral.

Todos los años, *la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos* (EVETU), dependiente del Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP, organiza un curso de 700 horas que incluye prácticas voluntarias de 300 horas para todas aquellas alumnas y alumnos que hayan superado este curso en su totalidad y que dispongan de, al menos, 48 meses de experiencia profesional en materia urbanística en los últimos 8 años.

Este convenio permitirá que este alumnado pueda realizar estas prácticas extracurriculares en el área de urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y completar así su formación.

Empleo y Políticas Sociales

**EL CONSEJO DE GOBIERNO DESIGNA A MARIAN OLABARRIETA
REPRESENTANTE DEL GOBIERNO VASCO EN LA COMISIÓN
INTERINSTITUCIONAL PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL**

El Consejo de Gobierno ha nombrado representante del Gobierno Vasco en la Comisión Interinstitucional para la Inclusión a **Marian Olabarrieta** directora de Servicios Sociales del departamento de Empleo y Políticas Sociales en sustitución de Emilio Sola.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 55 MILLONES DE EUROS PARA BECAS AL ALUMNADO DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS

- Plazo de solicitudes, del 30 de septiembre al 29 de octubre
- El Departamento de Educación garantiza que obtendrán ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos
- Las becas destinadas al alumnado de etapas educativas obligatorias no se ven modificadas

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios para el curso académico 2019-2020.

Con un importe global de 55 millones de euros, esta convocatoria para el curso 2019-2020 incluye becas y ayudas para los siguientes niveles educativos:

- Por una parte, becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, y Enseñanzas elementales de Música y Danza. Estas ayudas no se ven modificadas con respecto a anteriores convocatorias.

Las becas dirigidas al alumnado de los citados niveles de escolarización pueden comprender uno o varios de los siguientes componentes: componente de cuota; de enseñanza; de desplazamiento; de material escolar; y de comedor.

- Por otra parte, también se convocan becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles de Enseñanzas Postobligatorias no universitarias. Entre éstas se encuentran las siguientes enseñanzas: Bachillerato; Ciclos de Formación Profesional; Artes plásticas y diseño (Ciclos Formativos); Enseñanzas profesionales de música y danza; Enseñanzas deportivas; Enseñanzas de idiomas en escuelas oficiales de titularidad de la administración educativa.

Es en las becas destinadas a estas enseñanzas donde, tras la sentencia del Tribunal Supremo, el Departamento de Educación ha realizado las modificaciones necesarias para garantizar la seguridad jurídica de la convocatoria, y del alumnado beneficiario de las becas.

Tras las modificaciones realizadas, los componentes de beca que podrá solicitar el alumnado de estas enseñanzas son las siguientes: Componente de cuantía fija ligada a la renta del solicitante; Componente de cuantía fija ligada a la residencia del solicitante durante el curso; Componente de beca básica; Componente de cuantía fija ligada a la excelencia en el rendimiento académico; y Componente de cuantía variable. Los umbrales de renta que se establecen para cada uno de estos componentes también se han visto modificados.

El plazo de presentación de solicitudes estará abierto del 30 de septiembre al 29 de octubre. Toda la información estará disponible en la web del Departamento de Educación tras la publicación de la Orden en el BOPV.

El Departamento de Educación garantiza que obtendrán la ayuda económica todas las familias que cumplan los requisitos. Para ello, el importe de esta convocatoria (55 millones de euros) podría ser incrementado en el caso de que fuera necesario, garantizando de esta manera la igualdad de oportunidades de todo el alumnado en el acceso a la educación, sin que la situación económica familiar constituya una dificultad añadida.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD INICIA EL PROCESO DE CONTRATACIÓN PARA TRANSPORTE SANITARIO URGENTE POR UN IMPORTE DE 118 MILLONES DE EUROS

El Consejo de Gobierno ha acordado hoy el inicio, por parte del Departamento de Salud, del proceso de contratación del servicio de transporte sanitario urgente y asistencia a emergencias sanitarias para los próximos tres años (2020, 2021 y 2022) por un importe total de **117.615.576 euros**, lo que supone **un incremento del 27%** con respecto al actual, adecuándose, así, a los costes actuales y al convenio colectivo de transporte sanitario por carreteo de ambulancias.

Este nuevo contrato, cuyo ámbito territorial es toda la CAPV, agrupa los recursos de Soporte Vital Básico y Soporte Vital Avanzado con enfermería para la Red de Transporte Sanitario Urgente de Euskadi, que integra los recursos de ambulancias **distribuidas estratégicamente por diferentes puntos del territorio**, para que de forma coordinada realicen la prestación de servicios de asistencia y traslado sanitario urgente.

Este servicio se ofrecerá con un total de 74 ambulancias de Soporte Vital Básico y de Soporte Vital Avanzado con enfermería: 15 ambulancias en Araba (2 Soporte Vital Avanzado con enfermería y 13 de Soporte Vital Básico), 35 ambulancias en Bizkaia (7 Soporte Vital Avanzado con enfermería y 28 de soporte Vital Básico) y 24 en Gipuzkoa (2 Soporte Vital Avanzado con enfermería y 22 de Soporte Vital Básico).

Ante la imposibilidad de prestar el servicio por medios propios ya que el sistema sanitario público carece de los recursos, el Departamento de Salud, continúa con la misma línea de actuación para garantizar la calidad de la prestación sanitaria de urgencia ofertada a toda la población y avanzar en la globalización del proceso de asistencial objetivo de este nuevo contrato.

Los recursos de Soporte Vital Avanzado con Enfermería y de Soporte Vital Básico constituyen un pilar fundamental de la red de respuesta sanitaria a las urgencias y emergencias de Euskadi y permiten la asistencia sanitaria urgente en los lugares donde se produce la pérdida de salud ofreciendo una pronta respuesta ante una emergencia gracias a unos cortos tiempos de activación que permite el auxilio de personas en situaciones de riesgo para su salud, todo ello en coordinación con emergencias y todos los equipos integrantes de la Red de Transporte Sanitario Urgente.

El anuncio se enviará a publicar al DOUE y al perfil de contratante, tras su autorización y aprobación. Se prevé que el plazo de presentación de ofertas comience la última semana de septiembre y se extienda durante 15 días.